

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko abenduak 30 · 1337 zenbakia

AGUR 2024



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Fokatu hemen
zure mugikorrarekin
eta iritsi
gure webgunera



•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

Plaza Barria, 2, 29
Telf.: 943 201 844 - EIBAR
www.clinicarecalde.com

ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

PROMOZIO BERRIA TITANIOZKO INPLANTEETAN
URTARRILAREN 31-RA ARTE



ELGOIBAR · LASARTE-ORIA · TOLOSA

943 36 63 77

RPS 128/24

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.es

consultores@gaurve.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Badoa 2024. urtea, baina hilabete hauek laga dizkiguten irudiak gure YouTube-ko kanalean geratu dira. Bertan, urte osoan egindako bideoez gain, urteari egin diogun errepasoa ikusi dezakezue.

etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!"k ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



Hortik esanak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Medikuntzan berrehun ikasle inguruk ikasten dute gazteleraz, eta 140 inguruk euskaraz. Gaztelerazko eskoletako ikasleen %40 kanpokoak dira, eta ez dira hemen geratzen. Barruko mediku egoiliar postuak gehiago dira hemen trebatzen ditugun ikasleak baino. Sistema bat behar dugu hemen ikasi dutenak hemen trebatu daitezen. Hori da euskalduntzeari bide emateko dugun formula. Urtero, modu masiboan.

ALBERTO MARTINEZ, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua

Martinez sailburuak aitortzen du ez dakiela euskaraz; euskaltegira joango ote den galdetuta, erantzun du ez daukala denborarik, baina egunero hitz bat ikasten duela. Eta, behin animatuta, pontifikatu egiten du euskarak Osakidetzan daukan egoeraz: errua kanpotik datozen egoiliarrena da. Berea eta berak bezala soldata publiko potoloak etxeraten dituztenena ez da. Harrapazank! Osakidetzak euskara planak egiten adina urte daramatza Martinezek bizkarra ematen plan horiei; eta, euskarari ematen diogun garrantziaren erakusgarri, sailburu izendatu. Datorren Euskaraldian Martinezek txapa jarriko du paparrean.

MARTXELO OTAMENDI, kazetari eta zutabegilea

2025eko lehen alea urtarrilaren 10ean

Esku artean duzuen 2024ko Urtekariaren ondoren, aste honetan ez da alerik izango zuen buzoietan. Hurrengoa, beraz, normaltasunez helduko zaizue datorren asteko barixakuan, urtarrilaren 10ean.

Ondo amaitu urtea eta hobeto hasi hurrengoa!

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PATXADAZ → Trankil, patxadan. “Badoia betikuori patxadaz kafera, lagunekin kontuetan arrasaldia emotera”.

PATXADAZKO → Pertsona edo leku lasaia. “Etorri dan medikuak patxarazkua emoten dau”.

Mendizale taldea Urko mendiaren puntan

Argazkiaren eskubiko aldean Indalecio Ojanguren argazkilaria ikusten da, argazki-kamera aldean duela.

INDALECIO OJANGUREN



Farmaziak

ASTELEHENA 30
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 31
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 3
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 4
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 6
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 7
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 8
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Juan Maria Etxaniz Eizagirre.**
67 urte. 2024-12-20.
- **Lucio Agirrebeña Arizaga.**
94 urte. 2024-12-23.
- **Pilar Lovelle Devesa.**
93 urte. 2024-12-23.
- **Irene Bastida Orbea.**
95 urte. 2024-12-25.
- **Juan Agustin Vidal Rodriguez.**
80 urte. 2024-12-25.



EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien arteko hitzarmenak elkartana errezutuko diela uste dute.

55,7 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu dute 2025erako

Jon Iraola alkateak, Ana Telleria Ogasuneko zinegotzi eta udal talde sozialistako bozeramaileak eta Alberto de la Hoz EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak Eibarko Udalaren 2025erako aurrekontu-aurreproiektuaren ildo estrategikoak aurkeztu zituzten Gabonen aurretik egindako prentsaurrekoan.

Gerrikoa estutzen aritu eta gero, datorren urtean berriz ere inbertsioak egin ahalko direla iragarri du Udal Gobernu Taldeak. Horrela, 2025. urterako 55,7 milioi euroko aurrekontu-aurreproiektua aurkeztu diete oposizioko alderdiei, Eibarko EH Bilduri eta Elkarrekin Podemosi. Hori aztertu eta ekarpenak egiteko hamabost laneguneko epea izango dute eta, aurreikusitakoa betez gero, ur-tarrilaren lehen hamabostaldian

Hiriaren inguruneak, irisgarritasuna, aparkalekuak eta beste arlo batzuk hobetzeko lanak egiteko urtea izango dela diote

aurrekontu-proposamena Osoko Bilkuran onartzeko moduan egoitea espero dute.

Aurtengo aurrekontuarekin alderatuz gero, bost milioi eurotik gorako igoera dago. Alkatearen berbetan, “2025. urtean, pultsua berreskuratzeaz gain, oso obra garrantzitsuak egingo dira, herriko sektore ekonomikoak zein auzoak biziberritzeko balioko dutenak”. Aurrekontu-kapituluen arabera, udal-baliabide gehien ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuetarako bideratzen dira, 18 milioi euro inguru (gastu guztizkoaren %32,16). Hala ere, aurreko urteetan kapitulu hori igo egin bazen ere, “aurten gastuaren kontentzio- eta arrazionalizazio-ariketa arduratsu bat egin da, eta ez dago aldaketarik iazko ekitaldiarekiko”.

Eibarko sozialistek eta nazionalistek osatu berri duten koalizio-gobernuak aurkeztutako aurreproiektuan, gastu-kapitulu garrantzitsuena Pertsonalari dagokio, aurrekontu guztiaren %31,92 horretara bideratuko da eta: “Gastua 17,8 milioi eurokoa da, eta kopuru absolutuetan 1,3 milioi euro baino zertxobait gehiago handitu da iazkoarekin alderatuta”.

Telleriak azaldutakoaren arabera, gastu hori “batez ere Giza Baliabideen Plan Estrategikoan jasotako neurriak aplikatzearen ondorio da, plan horrek, batetik, plantilla berritzea eta udal-sailen benetako eta etorkizuneko beharretara egokitzea duelako helburu, eta baita herritarrek eskatutako kalitate-estandarrekin zerbitzua ematea ere, eta, bestetik, belaunaldien arteko erreleboa eta ezagutzaren transferentzia egokia egitea”. Iraolak nabarmendu zuenez, “Administrazioan aurre egin beharreko erretiro masiboen aurrean

-2024an plantillako 63 kidek 63 urte baino gehiago dituzte-, helburua da erreleboak irauten duen bitartean ez dadila langileen eza-gutzarik galdu. Horregatik, Giza Baliabideen Planak sei hilabeteko mentoretza-programa bat aurrerikusten du kasu gehienetan. Programa horretan, erretiroa hartuko duen langileak eta haren eginkizunak hartu eta erreleboa egingo duenak batera egongo dira aldi batez; horrek esan nahi du denbora batez plaza 'bikoiztuak' egongo direla, eta hortik gastuaren igoera, nahiz eta etorkizunerako inbertsioa dela esango nukeen”.

13 milioi euroko inbertsioak egiteko aurreikuspena

Inbertsioen kapitulua, bestalde, 13 milioi eurokoa izango da, “eta, horri esker, 2024an nahitaez birprogramatu behar izan ziren proiektu batzuk berraktibatuko dira, eta beste batzuk hasiko dira. Proiektu horiek guztiak zerikusia dute hiri-inguruneak hobetzearekin, irisgarritasunarekin, aparkalekuekin, eraikinak balioan jartzeko egokitzapenarekin eta erabilera berrien dotazioarekin”.

Ildo horretan, 2025ean amaituko direnen artean hauek lirateke garrantzitsuenak: Torrekua ambulatorio zaharra birmoldatzeko lanak; Barakaldo kalea (Electrociclos ondoan) Estaziño eta Azitain arteko trenbide-trazaduraren pasealeku-zatiarekin lotuko duen igogailua, Bustinduitarren kalea berrurbanizatzeko bigarren faseari ekingo zaio; Arragueta eta Mutiola kaleetan ere obrak egingo dira; San Juan – Mekola atzealdeko urbanizazioa, Jardiñetako aparkalekua eta kale bereko 25 eta 31 zenbakien arteko bi igogailuetako lehena; geroago egingo da bigarrena, parkingarekin lotzeko;

Obra nagusien artean trenbidearen gaineko pasealekua amaitzea eta Arragueta kalea birgaitzea daude

eta proiektua idatzi eta kreditua badago, Ubitxako aparkalekua egingo da.

Azpimarratu zutenez, “zalan-tzarik gabe, ekitaldi garrantzitsua izango da Barrena kalea berronertzea eta biziberritzearena. Izan ere, Estaziño eta Azitain lotuko dituen pasealeku-proiektuak aurrera egiten jarraitzeaz gain, eta beharrezko eraispenak egin ondoren, Hijos de Gabilondo fabrika zaharrean udal-ekipamendu be-



Herriko hainbat kaletan egin beharreko obra txikiak aurreikusi duten aurrekontua 640.000 eurokoa da.

rria adjudikatu eta gauzaten hasiko da. Funtzio anitzeko eraikina izango da, eta bateratu egingo ditu, alde batetik, jarduera ekonomikoa dinamizatzen laguntzeko eta ekin-tzailtza sustatzeko espazioak, eta, bestetik, herritar guztiak eta, bereziki, inguruko bizilagunek erabil eta disfrutatzeko espazioak. Eraikina birgaitu ondoren, ingurua eta Barrena kalea berrurbanizatuko dira. Bi jarduketan kostua, alegia, eraikinari bigarren bitzita ematea eta inguruaren hiri-kalitatea hobetzea, 10 milioi eurokoa izango da”. Gainera, “hobekuntza handiak egingo dira, ekipamenduari eta mantentze-lanei dagokienez, bai hiru kiroldegietan, bai Astelena pilotalekuan. Inbertsio eta mantentze-partiden batura 700.000 eurotik gorakoa izango da”.

Hainbat hobekuntza Eibarko EAJ-PNVren ardura duten arloetan

Bestalde, Alberto de la Hoz EAJ-PNVko bozeramaileak nabarmendu zuen partida ezberdinak sartu direla jeltzaleen presidentzia duten arloetan, “eta baita beste hobekuntza batzuk ere beste arlo batzuetan. Horiek guztiak indartu egiten dute planteatzen dugun hiri-eredua”. Arragueta berronertzeaz gain, Ubitxako aparkalekua egitea ezinbestekotzat jotzen dute. Izan ere, bere taldea aspalditik eskatzen ari den proiektua da eta.

EAJk kontrolatzen dituen arloen artean, azpimarratu behar da zuntz optikoko sare baten hedapena hasiko dela, udal-eraikinak eta azpiegiturak lotzeko, “Eibar konektatua eta, aldi berean, seguruagoa ahalbidetuko duena. Horri esker, trafiko-kamerak ezarri ahal izango ditugu herriko hainbat gunetan, Udaltzaingoarentzat eta Ertzaintzarentzat lagungarri izango direnak euren lanean”.



Asteklima 2024 saria jaso dute Udalak, Liburutegiak eta Egoaiziak

Urrian egin zen Asteklima Klima-aren eta Energiaren Astearen esparruan, Eibarko Udalak, Ingurumen Sailaren bidez eta Ihoberen laguntzarekin, hainbat jardueragaratu zituen, herritarrek klima-aldaketaren aurrean konpromiso pertsonalak hartzearen garrantziaz sentsibilizatzeko, eta Asteklima sariarekin ahalegin hori aitortu nahi izan diote. Asteklima sarietako kategoria ezberdinetara 50 ekimen aurkeztu dituzte 28 erakunde, eta Eibarko Udalak 20.000 biztanle-tik gorako udalerrien kategoriako saria eraman du.

Sariak banatzeko ekitaldia orain dela egun batzuk egin zuten, Bilboko Bizkaia plazako auditorioan. Jon Iraola alkateak ekimen honen garrantzia azpimarratu du: “Herritar guztiak aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan inplikatzeko lanean dihardugu Udalean,

denoi eragiten digun erronka bat da. Asteklimak esfortzuak batzeko aukera eman digu, eta harro nago tokiko gure erakundeek erakutsi duten konpromisoarengatik eta, bereziki, Udal Liburutegiak eta Egoaiziak aurten egin dituzten ekimenengatik”.

Izan ere, Udalarekin batera, Juan San Martin Liburutegiari ere saria eman diote, Asteklima interesgunearen proiektuagatik. Asteklimaren astean klima-aldaketari buruzko erakusketa tematikoa ipini zuen ikusgai Liburutegiak, eta haur zein helduentzat irakurketa-gidak prestatu zituen. Liburutegian ez ezik, gidak ikastetxeetan banatu zituzten eta, nahi izanez gero, Interneten eskuratu daitezke. Eta GKE eta elkarten kategorian, berriz, Eibarko Egoaizia GGKEari eman diote saria, Kontsumo arduratsu eta Ekologikoaren Azokarengatik.



'Eibarko itsas abentura' erakusketa zabaldu dute Armagintzaren Museoa

Abenduaren 18az geroztik *Eibarko itsas abentura* izeneko erakusketa bisitatu daiteke Portaleko 5. pisuan, Eibarko Armagintzaren Museoa. Arduradunen berbetan, “Eibarrek eta itsasoak lotura garrantzitsua izan dute betidanik, beren industrian eta produktuen komertzializazioan oinarrituta, XVI. mendean produktuak merkaturatzeko Debako portuan itsasontziak eraikitzen zituzten armadore eibartarretatik hasi eta Adrian Laspiur eta Garra bezalako enpresetarik; izan ere, enpresa horiek ontzigintzako eta eraikuntzako burdinaria-sektorean jarduten zuten eta ospe handiena aingurak eraikitzeagatik lortu zuten”. Erakusketa horretan, besteak beste, Martín de Orbearen erretratua, Industrias Garrak eta Laspiur familiak emandako itsas piezen moldeak, eta merkurioa garraiatzeko ontzien erreplikak ikusi daitezke. Jon Iraola alkateak erakusketa prestatzen lagundu duten guztiei bere esker ona azaldu nahi izan zien: “Laspiur, Albistegi, Lopez de Aldaramos, Narbaiza eta Orbea-Echave familiei, besteak beste”. Martxoaren 30era arte joan daiteke ikustera, doan.

Oinezkoek ere parte hartu ahal izango dute aurtengo San Silvestren

Gabon Zahar eguneko Eibarko Kirol Sarietako 29. edizioa Coliseon amaitu eta gero, Errebal bertatik abiatuko da San Silvestre proba. Eibarko Kirol Kluben laguntzarekin antolatzen duten ekitaldi horretako 33. edizioa jokatu da martitzenean, 13:00etan hasita. Herriaren barruko kaleetatik egingo da, bost kilometroko proba osatu arte, euretako “lau eta erdi guztiok elkarrekin egiteko” antolatzaileen asmoetan. Eta, berezitasun bezala, oraingoan oinezkoek ere izango dute bueltatxo bat emateko aukera. Hain zuzen, korrikakoen ondoren aterako

dira “eta oinez egingo dute, Errebaletik irten eta, Untzagan buelta emanaz, Urkizuraino eta bueltako ibilbidea”. Guztira, 2’4 kilometro inguru izango dira.

Orain dela bi urte hasitakoari jarraituz, San Silvestre proba gero eta herrikoago bihurtu da, jendearen parte-hartzea ere handituz: aurrez arratsaldetan Aixolako urtegiaren bueltan egiten zena orain bazkaldu aurretiko ohitura bihurtu dugu. Gose pixka bat egiteko, gainera, zer hobeagorik dantzan egitea baino? Horregatik, hasi eta ordu erdi geroago erromeria izango dugu



Aurtengo ediziorako kartela.

Untzaga plazan, Jainaga eta Narbaizaren eskutik. 13:30ean.



Urbateko lehen taldeak Malagan irabazten amaitu zuen urtea

Urtea agurtzeko, garaipenarekin bueltatu ziren Urbat Urkotronik-eko lehen taldekoak Malagatik. Hori bai, penaltietan irabazi zuten, partidua amaitzeko lau minuten faltan 5-9ko emaitza eroso alde zutenean. Epailen lanak ere ez zien askorik lagundu eibartarrei,

baina taldeak ez zuen jakin izan neurketari lasaiago eusten. Baina partiduko jokalarionenaren saria jaso zuen Xabat Karrerak azken jokaldian berdinketa salbatu zuen. Eskerrak penaltietan eibartarrak hobeto moldatu zirela. Azken emaitza 11-14koa izan zen Urbaten alde.

Astelena Katedrala profesionaleko Eguberri eta Erregetako jaialdien zain

Pilota profesionaleko goi mailako hiru jaialdi hartuko ditu, beste behin, Astelena pilotaren Katedralak Gabon jaien inguruan. Abenduaren 25ean izandako lehenengoan sarrerak agortu eta frontoia lepo bete zuten pilotazaleek eta gauza bera espero dute Aspe enpresako antolatzaileek urtarilaren 1erako eta 6rako prestatu dituzten jaialdie-

tan: etziko partidu nagusian Altuna txapelduna eta Aranguren izango dira alde batetik, eta Jaka eta Imaz bestetik. Eta Errege eguneko norgehiagoka nagusian Artola-Mariekurrena eta Laso-Iztueta bikoteek, biak Baikokoak, neurtuko dituzte indarrak. Egun bietako lehenengo partiduetan Eiguren-Bikuña bikotea arituko da.





MAIALEN ORTE

Astrofisikaria

“Nebulosen argazkiak asko gustatzen zaizkit txikitatik, baina baita haien konposizioa ere”

urtarrila

1



ANDONI MAYO

Txakur-kroslaria

“Txakurrak agintzen du hemen; berak ez badu nahi, erretiratu eta kitto”

Urtarrilaren Ilean Urkora Igoera antolatzen duen Eibar-ko Klub Deportiboarentzat urte berezia izan da 2024a. Mendeurrena bete du aurten Deporrek eta urteko lehen egunetik egin ditu ospakizunak. Denak izan ziren bereziak, baina urtarrilaren 30ean, bere egunean, Urkora bidea argiztatu zutenean, malkoak erori zitzaizkion bati baino gehiagori.

Pentsio duinen aldeko borroka sei urte bete zituen eta hor jarraitu dute urte guztian zehar, astelehenetan elkarretaratzeei tinko utsiz.

Auzokoak elkarteak Gureak-eko langileei eskaintzen dien Gabonetako bazkaria berreskuratu zuen

eta, horrela, ekitaldiaren 40. edizioa egin dute aurten.

Gizon bat atxilotu zuten 49 migratzaile esplotatu eta egoera osasungaitzean ostatu emateagatik, eta gertatutakoa gogor gaitzesteko eta salatzeke kalera irten ziren eibartarrak.

Jon Maiak ikuskizun gogoangarria eskaini zuen Coliseo antzokian ‘Kantu berri bat gara’ saioarekin.

Eibarko Baso Biziak elkarteak ekintzaz beteriko urtea eduki du eta, milaka zuhaitz landatzeaz gain, lur-sailak ere bereganatu ditu. Adibidez, urtarrilaren amaieran Haritzbakarragan 200 zuhaitz landatu zituzten.



Eibarko Baso Biziak elkarteok ehundaka zuhaitz landatu dituzte urte guztian zehar Eibar inguruko mendietan.



‘Kantu berri bat gara’ ikuskizuna eskaini zuen Jon Maiak ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.

- › Azken **40** urteetan **%60ko** arrakasta duen programa jartzen du eskura AECC-k.
- › Gaur egun, **444** odol-emaile ditugu Eibarren.



MAITE GURRUTXAGA

Ilustratzailea

“Komikiari asko falta zaio merezi duen tokia jasotzeko”



Urkorainoko bidea argiztatu zuten Eibarko Klub Deportiboren mendeurrena ospatzeko.
IRAIA AGIRRE



MARISA IGLESIAS

Filosofoa

“Oso pozik nago filosofia kalean egiteko aukerarekin, filosofia bertan egon behar da-eta”



Gureak-eko langileak berriz ere elkartu ziren Urkizuko elkarte gastronomikoetan ohiko Erregeetako bazkaria egiteko.

	<p>Baimendutako harategia Euskal Okela Carnicería autorizada</p>	<p>Bidebarrieta, 20 Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar ETXERA ERAMATEN DIZUGU 943 20 16 69 f @Oberenaharategia</p>	
---	---	---	--

otsaila

2



MANEX BERISTAIN

Barreterapeuta

“Ama galdu duen ume baten erresilientzia aldarrikapena da ‘Azken galdera amari’ ipuina”



IRUNE JAIO

Diseinatzaile grafikoa

“Marka-irudi berriarekin, Klub Deportiboak duen handitasun guztia ikusiko dugu orain”

Otsailaren lehen egunean Ikasenpresa Azokaren XIII. edizioa egin zen Eibarren. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako 55 ikastetxetatik 2.000 ikasle baino gehiago etorri ziren, eta 106 irakasle bildu zituen ekimenak. Gainera, 420 proiektu aurkeztu zituzten.

Urteroko ohiturei jarraituz, San Blas opilak bedeinakatu zituzten hilaren 3an eta, bestalde, San Blas opilekin bat etorri ziren aurten koko-dantzak. Eguraldia

lagun izan genuen aratosteetan zehar eta, Eibar baino, Rio de Janeiro zirudien herriak giro tropikal horrekin.

Uni Eibar-Ermua ikastetxeak Uni Encounter informatika eta teknologia berrien topaketa jaso zuen 20. urtez. Bertan, erabiltzaile adituentzako hitzaldiekin batera, publiko orokorarentzat pentsatutako beste-lako jarduera ludikoagoak egin zituzten.

Otsailaren 15etik martxoaren 21era Antzerki Jardunaldien 43. edizioa egin zen. Anabel Alonso aktore bizkaitarrak eman zien hasiera jardunaldiei eta, urtero bezala, goi-mailako antzezlanak ikusteko aukera izan genuen.

Urtarrilean bezala, Lanbide Heziketako ikasleentzat beste azoka bat egin zen otsailaren amaieran: ABIAN. Ipurua futbol zelaiko garajeetan elkartu ziren milaka ikasle zenbait egunetan.

Untzagako jubiletxeak aro berria hasi du aurten. Zuzendaritzako karguak berritu dituzte eta orain Sagrario Sanchez da presidentea, presidenteordea Alberto Viteri den bitartean, euren filosofiari jarraituz eta bide berriak hartuz.

Eibar zinema-plato bihurtu dute aurten eta zenbait pelikula grabatu dituzte gure herrian. Adibidez, otsailean ‘Cuerpo escombros’ ibili ziren filmatzen.

Mugi Panderoa erromeria taldeak 10 urte bete ditu aurten eta martxa betean daudela erakutsi dute, gelditu barik ibili direlako.



‘Cuerpo escombros’ pelikula filmatzen ibili ziren Untzagan.

» Eibarrek **153** biztanle irabazi ditu iaiztik hona. **27.417** biztanle gara guztira.

» Hondakinak gaika sailkatuta, urtean **2** milioi euro aurreztuko lirateke Debabarrenean.



**MIGUEL
ARROITAJAUREGI**

Idazlea

**“Gerra bat amaitzen denean,
gauza bat da gerra galtzea,
eta beste bat galtzaile izatea”**



MIREIA GABILONDO

Aktorea

**“Hizkuntza batetik bestera
pasatzea ez da erraza, baina
uste dut buruko toki batean
gordetzen zaigula testua”**



Emakumeen 60 metroko lasterketako Klub Deportiboko marka onena lortu zuen Elena Arrazolak: 7,66.



Koko Dantzak goiz iritsi ziren aurten herriko baserrietara, otsailaren hasieran. FERNANDO RETOLAZA

Euskadi osotik etorritako Lanbide Heziketako milaka ikasle etorri ziren Abian azokara.

martxo

3



IZASKUN URKIJO

Arte zuzendaria

“Bizkarsoro pelikulak hizkuntza baten heriotzaz egiten du berba, autopsia moduko bat da”



ITZIAR SAENZ DE OJER

Pituxa klown

“Korrika bizi dugun jende asko gaude, oso ekimen garrantzitsua da eta hori azpimarratu nahi nuen”

Martxoaren 8ak morez janzten du martxoa, hilabete guztian zehar egiten baitira Emakumearen Egunaren inguruko ekintzak. Aurten zaintza izan zen landu zen gai nagusia, baina feminismoaren aldarrikapenek oihartzuna izan zuten martxoan zehar.

Martxoko beste zita nagusia Korrika izan zen. Hilaren 20aren goizean pasa zen Eibartik eta milaka lagun elkartu ziren euskararen alde antxintxika egiteko. Gainera, momentu hunkigarriak bizi ziren, bere mendeurrenaren atarian zegoen Kontxa Laspiurrek lekukoa jaso zuenean kasu.

Hilaren 16an ere herritarrak kalera irten ziren, bai-

na kasu horretan protesta egitera, kalitatezko osasun sistema publiko baten alde.

Eibarren eratu zen Euskadiko bigarren Tokiko Energia Komunitatea. Horren bitartez energiaren onurak eskaini nahi zaizkie bertan parte hartzen dutenei, energia garbiena, eraginkorra eta merkeena beraien eskuetan jarrita.

Herriak, eta batez ere hemengo musikariek, berri lazgarria jaso zuen martxoan, Walter Tuzzeok bat-batean utzi zigulako. Sizilian jaiotako herritarrak demaseko hutsunea laga du, eman duen guztiaren beste-koa. Hilabete batzuk geroago omenaldia jasoko zuen.



Zaporeak erronkak eratzun bikaina jaso zuen herritarren aldetik.



Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, manifestazioa egin zen herrian.

- › **50.604.770** euroko aurrekontua onartu zuen 2024rako Udalbatzak.
- › **13.000** eurotik gora batu zituzten eskualdean Zaporeak GKE-ri emateko.



GORKA MINGUEZ

Antzerki zuzendaria

“Gazteak antzerkira erakartzeko ez dira deskontuak behar, euren intereseko gaiak baizik”



MAITE ARROITAJAUREGI

Musikaria

“Euskarak bizi duen egoera kontuan hartuta, indar berezia izango du aurtengo Korrikak”



Walter Tuzzeo soinu-teknikari eta musikari eibartarra hil zen martxoan.



Euskarari hainbeste eman dion Kontxa Laspiur omendu zuten Korrikan.

Eguraldia lagun, milaka lagunek egin zuten korrika Elbarren euskararen alde.



JOSU MUGIKA

Dantzaria

“Birakari agur esatean, eskerrak eman nahi dizkiot Eibarri jaso dudanagatik”

apirila 4



DAVID LOPEZ SIMON

Egur zizelkatzailea

“Egurra zizelkatzeak motibatu egiten nau eta demaseko bakea ematen dit”

2022ko urriaz geroztik sutan da Palestina Israelen erasoaren ondorioz. Genozidioaren aurrean, eibartarrak ez dira beste alde batera begira gelditu eta urte osoan zehar elkartasuna erakutsi diete palestinarrei, hilero gutxienez elkarretaratzeak eginez.

Apirila bizikleten hilabetea izan ohi da herrian. Hilabete hasieran Itzulia jaso genuen, gurean erabaki zena. Egun batzuk lehenago Vingegaard, Evenepoel eta Roglic faboritoek lasterketa laga behar izan zuten erorketa bortitz baten ondorioz, baina hala ere lehia ikusgarria bizi izan genuen gure errepideetan. Carlos Rodriguezek irabazi zuen Eibarren eta Juan Ayusok jantzi zuen lasterketaren irabazlearen txapela.

Hurrengo egunean 500 lagun elkartu ziren Challenge martxan.

Kirol arloarekin jarraituz, SD Eibar-en bigarren taldeek (Vitoria eta Eibar B) mailaz igo zuten, Deporrek xake taldea Gipuzkoako 1. Mailara igo zen, Ipuruako gimnasten bi talde nagusiak urrezko bihurtu ziren Euskal Ligan eta Eider Agirre gimnastak jubencil mailako Espainiako txapela jantzi zuen, besteak beste.

Apirilaren 21ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren. Eibarko emaitzei begiratuz gero, EH Bilduk 4.145 boto jaso zituen, orain arte horrelakoetan EAJ-PNV (3.806 boto) nagusi izan denari aurrea hartuz. PSE-EEk 2.948 boto lortu zituen.



Herritarrek bikain erantzun zuten Zuhaitz Egunean.



Aurten birritan joan gara botoa ematera. Lehena, apirilean, Eusko Legebiltzarrerako ordezkariak aukeratzera.

» **500** arbola landatu zituzten Zuhaitz Egunean.

» **100** urte bete dituela ospatzeko, Deporrek zenbait erronka bota ditu aurten.



CRISTINA CHIQUIN

Fotokazetaria

“Guatemalako Bake Ituna 1996an sinatu zen, baina estatu-biolentzia jasaten duen herrialdea izaten jarraitzen dugu”



Herriko dantzariak hainbat erakustaldi egin zituzten kalean Dantzaren Egunean.



NEREA LOIOLA

Idazlea

“Hitzetara eramaten ditudan egoera, eszena, elkarrizketa guztiak benetan gertatuko balira bezala irudikatzen ditut”



Palestinaren aldeko hainbat ekintza egin dira aurten herrian.



ANDREA COVADONGA

Aktorea

“Asko gustatzen zait umeentzat aktuatzeko. Umeak zailak dira ikusle moduan”

Maiatzarekin hasi ziren herriko udaberriko eta udako jaien ospakizunak. Santa Kurutzeko jaiak hilaren hasieran ospatu ziren eta giro ederra bizi izan zen ermita inguruan. Gero etorriko ziren San Isidro, Dia das Letras Galegas eta Euskal Jaia ere.

Zamacola lantegi-etxea ezagutzera emateko ekimena antolatu zuen Museoak eta guk geuk gertutik ezagutzeko aukera izan genuen Ilde Zamakola Aristegirekin. Herriko industriaren historiaren lekuko da Zamacola tailerra eta beste sasoi bateko giroa arnasten da bertan.

Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren baitan estatu mailako argazkilari onenen lanak ikusi ahal izan ziren

maiatza 5



MIKEL GAZTELURRUTIA

Musikaria

“Orain dela 40 urte ezinezkoa zen imajinatzea Eibarren eta inguruan jazz musikaririk egotea”

herrian, aretoetan zein kalean. Gainera, tailerrak ere egin ziren.

Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak (EOLHUI) eta Debegesak Latia Emon ekimena jarri zuten martxan, ikasleen sormena, ekonomia zirkularra eta gizarteratzea batuz. Horrela, milaka lata batuz, horma-irudiak egin zituzten eta, gero, Untzagan ikusgai laga.

Kirolari dagokionez, Garikoitz Iruretagoiena Deporreko apneistak Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazi zituen eta Yurani Blanco txirrindulariak irabazi zuen VI. Eibarko Hiria Sari Nagusia.



Zamacola lantegi-etxea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan genuen.

- » Udaberrian **5.000** lore inguru jartzen dituzte herriko lorategietan.
- » Atzerrian jaiotako eibartarrak biztanleriaren **%14,4** dira gaur egun.



GORKA ERRASTI

Immigrazio teknikaria

“Urtero antolatu behar dugu Kulturartekotasun Jaia? Edo Sanjuanetan kulturartekotasun ekintzak txertatzeko ordua da?”



Udaberri kolorea hartu zuten herriko lorategiek.



GEMA BAQUE

Idazlea

“XX. mendeko gertaerak epaitzerakoan orduko testuingurua izan behar da kontuan, oraingo gizartea desberdina baita”



Birziklatutako latekin egindako horma-irudiak Untzagan erakutsi zituzten.

Izadi
LORADENDA
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
 NATURAL ETA
 LEHORRAK
 EZKONTZETARAKO
 LORAK
 ZENTROAK
 ERRAMUAK
Enkarguak etxera

GAUR
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA ETXE-
 ERREFORMA ELEKTRIKO
 INTEGRALAK. ILUMINAZIOA
 ATEZAIN AUTOMATIKOAK
 ETA BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren, 9 Tel. 943 20 62 40
 nagore@egaur.com

ekaina

6


**MARIA AMOR ARAKISTAIN
LOLA GISASOLA**

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan

“Edozein lasterketatan denbora garrantzitsua da, minbiziaren detekzio goiztiarrean bezala”


JUNE GOMEZ

‘El Conquistador del Fin del Mundo’

“Burua da konkistatzaile batek izan behar duen ezaugarririk garrantzitsuena”

2023ko urrian hil zen Urtzi Abantzabalegi omendu zuten ekainaren 2an, bere bigarren etxea izan den Unbeko errugbi zelaian. Lagun ugari elkartu ziren agurrik beroena emateko eta, errugbian egiteaz gain, janariaz, edariaz eta musikaz ere gozatu ahal izan zuten. Ez adiorik, Urtzi!

Ekaina, nola ez, San Juan jaien inguruko ekintzez bete ohi da eta jaiak hilaren 23an egiten du eztanda. Izengabeak musika lehiaketa eta Izaroren kontzertuak euripean bizi izan genituen, baina gainontzeko ekin-tzak giro ederrean pasatzeko aukera izan genuen. Egun batzuk geroago, ostera, albiste lazgarria jaso genuen: Salvador Martinez Lizarrako dultzaineroaren heriotza.

Sanjuanekin lotuta, Casino Artista Eibarresen bilar txapelketa jokatu zen eta elkartearen 112 urteen inguruko ibilbideaz jardun genuen hango kideekin.

Sanjuanak ez ziren izan hileko ospakizun bakarrak, 28an Harrotasunaren eguna ospatu zelako. Horrela, ostadarraren bandera igotzeaz gain, egun horren inguruan zenbait ekintza egin zituzten (tailerra, kontzertua...).

Urtean bigarren aldiz joan ginen botoa ematera, oraingoan Europako Hauteskundeetarako. Eibarko emaitzei dagokienez, PSOE izan zen garaile 3.602 botorekin (%34,57), eta 642 boto gutxiagorekin EH Bildu izan zen bigarrena (2.960 boto, %28,47).

Kirolari dagokionez, arrakastaren ateetan geratu ziren herriko hainbat ordezkari: SD Eibarrek hirugarrenez ere ez zuen Lehen Mailara igotzeko helburua lortu, Hodei Ezpeleta 3. geratu zen Urrezko Aizkolariak txapelketan eta Eibar Rugby Taldea bigarren izan zen Unben lehiatu zen errugbi 7ko Erreginaren Kopan.



Jaiak eztanda egin zuen hilaren 23an.

- » ELA gaixotasuna daukatenei laguntzeko **2.700** euro bildu ditu ADELA-Gipuzkoak.
- » **500** bat herritar elkartu ziren Palestinaren alde hilaren 2an egindako martxan.



ANDONI VAZQUEZ SANTOS

Eibarko Musika Bandako zuzendaria

“Publikoan gorakada egon da, musikari gehiago ditugu eta askoz ere talde egonkorragoa dugu”



TOMAS LIZARAZU

Bulego

“Benetan mugitzen gaituena eszenatoki batera igo eta hor sortzen den energia bizitzea da”



Ikasturte amaierako erakusketa egin zuten Zeramika eta Margo Eskolako ikasleek.



Minbiziaren aurkako martxan ehundaka lagun irten ziren kalera.

Casino Artista Eibarreseko billaristak maila bikainean ari dira azken urteotan.



NEREA ARIZNABARRETA

Ipuin-kontalaria eta aktorea

“Gauza askok beldurra ematen digute ez ditugulako benetan ezagutzen”

Udako oporretan herriko ume askok hartzen dute parte udalekuetan, baina udalekuak ez dira haurrentzat bakarrik, jubilatuek ere izaten dutelako aukera Uda-JubiLekuetan ekimenarekin. Aurten ere bikain ibili dira San Asensio inguruan.

Beste eibartar batzuk abentura bila ibili ziren uztailean zehar. Hain zuzen ere, Euskal Herria oinez zeharkatzen Euskarabentura egitasmoaren barruan. Elga Ariznabarreta eta Fikri el Ghabali izan ziren eibartar



Lambretta motorren doinuak entzun ahal izan genituen Untzagan.

uztaila 7 8 abuztua



JUAN PALACIOS

Zinegilea

“Flyscha estratueta banatuta dagoen bezala, pelikula estratu filmikoetan banatzen saiatu naiz”

hauak, azkena begirale lanetan ibili zelarik.

Sanjuanen ondoren, jaiak martxa betean jarraitu zuten Amañan. Ana Ramos kazetaria arduratu zen txupinazoak eta jaien 46. edizioak denetik izan zuen: Boikot eta Xiberootsen kontzertuak, pailazoak, mus-txapelketa, danborrada... Hurrengo astean, San Kristobal auzoko jaien faltan, Ipuruako Bolatokian ‘Ez Jaiak’ ospatu zituzten. Hori bai, Lambretta Topaketak ez zuen hutsik egin eta 19. edizioa ospatu zen. 60 Lambretta elkartu ziren bertan.

Herriko beste auzo batean, Txontan, Isabel Rodriguez Etxebizitza eta Hiri Agendako ministroaren bisita jaso zuten. Auzoa birgaitzeko proiektua bertatik bertara ezagutzen egon zen.

Kirolari dagokionez, Euskadiko eta Espainiako txapelketak berreskuratu ondoren, Deporrek Garikoitz Iruretagoiena hirugarren izan zen munduko apnea txapelketan. Bestalde, Elene Arrazola azpitxapeldun izan zen Espainiako txapelketako 100 metrokoan.

Abuztua sasoi aproposa izan ohi da herrian obrak egiteko eta aurten ere ohitura horri eutsi diote. Pagaegi eta Jardinieta kaleen arteko eremuko urbanizazio-obra, Estaziño inguruan trenbidearen gaineko pasealekua eraikitzeko lanean jarraitu zuten, Barrena kalean dagoen “Hijos de Gabilondo SL” eraikinaren eraipen partziala egiteko lanak erritmo onean zihoazen...

- » Alfa MIMtech enpresak **20** urte bete ditu eta Iñaki Goenaga aitortpena jaso du.
- » **106** xakelarik hartu zuten parte **36**. Jose Mari Kruzeta Txapelketan.



AMAIA HERRERO OIARZABAL

Filologoa

**“Etorkinei buruz ditugun
aurreiritzi asko alde
batera utzi behar ditugu
euskaldunok”**



Gabilondo enpresaren eraikina botatzen hasi ziren udan.



LUCIA MOYA

Errugbilaria

**“Eibar Rugby Taldearen aurka
jokatu nuenean sentimendu
kontrajarriak izan nituen”**



Jubilatuak San Asension egon ziren udalekuez gozaten.

BOLINTXO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Eguneroko ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal)

PUBLI RESA
abgite publikitario

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Armagin, 3-5 behea

XXIX. Eibarko Kirol Sariak



Abenduaren 31n, martitzena, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien 29. edizioak hitzordua izango du Eibarko kirol munduarekin. Coliseon, eguerdiko 12:00etan hasiko den ekitaldian, kirol-modalitate bakoitzean izendatutako kirolariak euren saria jasoko dute; aurten 30 banatuko dira guztira. Eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol-taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik. Ekitaldira joaterik ez duzenok ere streaming bidez jarraitu ahal izango duzue ...eta kitto!-ren YouTubeko kanalean.

abenduak 31 / martitzena
12:00 / Coliseo Antzokia



Atletismoko Egidazu/De Diego Lantaldea
SARI BEREZIA



Mari Fran Arana
EUSKARA



Eddine/Aitlageme
ARETO-FUTBOLA



Elene Arrazola
ATLETISMOA



Sánchez/Berriozabal
BILLAR



Vicente Diez
ERRUGBIA



Mikel Casado
ESKUBALOIA



Hodei Arrillaga
FUTBOLA



Juan Cruz Ulacia
HERRI KIROLAK



Ipuruako Oinarri Jubenil Taldea
GIMNASIA ERRITMIKOA



Eibar Igerixaneko Junior Nesken Taldea
IGERIKETA



Oier Ugarteburu
HIRU TXIRLO



Aiora Ballesteros
HOCKEY



Doha Srrhir
JUDO



Alex Beorlegui
JUGGER



Jesus Castillo
KARATEA



Egoitz Rios
KICK BOXING



Rikardo Aranburu
MENDIA



Ugaitz Seguroloa
PILOTA



Polanco anaiak
SASKIBALOIA



Oscar Ferreiro
SQUASH



Iker Pacios
TENISA



Abraham Bujedo
TIRO OLINPIKOA



Enrique Guruzeta
TRIATLOIA



Aritz Esnaola
TXIRRINDULARITZA



Jon Lapeyra
URPEKOAK



Iraide Sarriá
WATERPOLOA



Amer Agbalou
WU-SHU



Diogo Vale
XAKEA



Alkideba
SUSTAPENA



Eibarko Klub Deportiboa
ERREKONozIMENDUA



CRISTINA ORTEGA JUARISTI

AVS-ko espazioko zuzendaria

"Martera heldu eta gero, Lur-1 satelitearekin berriz ere sentitu dugu gorenera iritsi garela"

iraila 9



AINTZANE AGIRREBEÑA MIRARI AZKUNE

Trikitolariak

"Dugun penarik handiena Walter Tuzzeok lana amaituta ikusi ez izana da, demaseko ilusioa zuen diskoarekin"

Irailarekin Arrateko Amaren Jaiak datoz. Aurten zapatuan ospatu zen egun nagusia eta, eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, milaka lagun elkartu ziren Arrateko zelaian. Bezperan ere demaseko giroa bizi izan zen, barixakua izanik ohikoa baino egita-



Eskrima klasikoaren ikuskizuna eman zuten Untzagan.

rau beteagoa prestatu baitzuten. Eguraldi eskasari, aurpegi ona.

Ipuruan ere jaiak ospatu ziren aspaldiko partez. Urte osoko lanaren ostean, Ipuruako Jai Batzordeak jaiak aurrera ateratzea lortu zuen eta herriak bikain erantzun zuen, lagun ugari elkartu zirelako auzoan.

Ikasleentzat ezezik, kirolarientzat ere kurtso hasiera izan zen iraila. Batzuek abuztuan ere lehian ibili ziren arren (Pello Osorok podiumak pilatu zituen zenbait lasterketatan, eta irailean Bilboko triatloia poltsikoratu zuen), irailean jarri ziren martxan asko. Batzuk aldaketekin, Eibar Rugby Taldean bezala. Izan ere, Cristina Guntin eta Gaston Ibarburu entrenatzaileek talde nagusien ardurua izateari laga zioten. Emakumezkoen taldeari dagokionez, Javi Aguado eta Jokin Gorrotxategi hartu zituzten entrenatzaile.

JAZ-Zubiaurre enpresak 100 urte bete zituen eta Imanol Pradales lehendakaria, Eider Mendoza diputatu nagusia eta Adegí, Confebask eta CEOEko ordezkari nagusiak egon ziren ospakizunean.

Irailaren 28a egun hunkigarria izan zen, herriko musikariek (eta beste herri batzuetakoek ere) Walter Tuzze soinu-teknikari eta musikaria omendu zutelako Untzagan. Hainbat ordutako ikuskizuna eskaini zuten italiar handiari agur esateko.

- › Eibarko Baso Biziak elkartekok **1,5** hektarea erosi zituzten Kaminburun.
- › **100.000** euro baino gehiago erabili dira eskolen hobekuntzarako obretan.



ANDER ROMARATE

*Teknikaria Paris 2024
Paralinpiar Jokoetan*

**“Fisikoki eta mentalki
gogorragoa da Jokoetara
teknikari bezala joatea
kirolari moduan baino”**



IKER ARANBERRI

Xabier Lete Poesia Saria

**“Poesiak esan nahi duzuna
modu eder eta ezberdinago
batean kontatzeko
askatasuna ematen dizu”**



Odol-emileen beharra dagoela jakinarazi zuten behin eta berriz urtean zehar.



Hainbat urteren ondoren, Ipuruako jaiak itzuli dira eta jende ugari elkartu zen auzoan.

Eguraldiak ez zuen lagundu Arrateko jaietan, baina hala ere eibartarrek ez zuten hutsik egin eta zelaian jaiaz gozatu zuten.

urria 1 0



ASIER SERRANO

Idazlea

“Bere momentuan, liburua sortzea zen garrantzitsua niretzat, horrek asetu ninduen”



ZALOA URAIN

...eta kitto! Jaian omendua

“Geure buruari ez diogu baloratzen egindako gauza asko eta oso polita iruditu zait hori sentitzea”

Eibartarrak gauza asko ospatzeko gogoz dabilta azken urteotan eta asko ugaritu dira kintadak. Udazkena izan ohi da horrelako ospakizunak egiteko sasoi eta aurten ere horrela izan da.

Urriko lehen zapatuan hutsik egiten ez duen ekintza ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen Sagar-do Eguna da. Aurten ere egin da, izaera berdinarekin baina izen aldaketarekin. ...eta kitto! Jaia ospatu zen eta milaka lagun elkartu ziren goizetik gauera euskara eta sagardo dastatzeko.

Juan Antonio Palacios argazkilaria eibartarrak irabazi zuen Indalecio Ojanguren Lehiaketako Ohorezko Saria, herrian profeta bihurtuz.

Politika arloan hautsak harrotu zituen akordioa lortu zuten PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek, koalizio-gobernua osatuz. Horren ondorioz, Josu Mendicute eta Amaia Albizu EAJ-ren zinegotziek kargua laga zuten.

Urkizun Al Fitrah topagunea zabaldu zuten, Eibar-ko komunitate islamikoaren beharrak asetzeko lan egiteko asmoz.

Gaztetour ekimenarekin Gipuzkoako talentu musikalaraz gozatzeko aukera izan genuen eta etorkizunean zeresana eman dezakeen eibartar bat estrainekoz ikusi ahal izan genuen eszenatoki gainean bakarlari bezala: Udaz.

Musikaz gain, gorputza astintzeko aukera ere egon zen, Zumbatoia egin baitzen hileko azken asteburuan.



Milaka lagun elkartu ziren ...eta kitto! Jaian.

» **60** lagunetik gora elkartu ziren Ekinguneren On Ekin sarien banaketan.

» **21** ikaslek osatzen dute Esperientzia Eskolako 20. promozioa.



JUAN ANTONIO PALACIOS

Argazkilaria

“Argazkiak paperean ikustea, ukitzea eta paretan eskegita ikustea beste kontu bat da”



UDAZ

Musikaria

“Barrutik ateratzen zaidana egiten dut, pentsatu gabe”



Judash taldeak bere lehen diskoa atera zuen.



PSE-EEk eta EAJ-PNVk udal-akordioa hitzartu zuten.

Esperientzia Eskolaren 20. promozioak ikasturte berriari hasiera eman zion.

**ASIER BLAS***Nazioarteko politikan aditua*

“Trumpek demaseko babesa jaso du, baina irabazi ez duen estatuetan ere”

Asier Errasti Film Laburren 25. edizioa egin zen eta maila handiko lanak ikusi ahal izan genituen aste osoan zehar. Gainera, jaialdiari ginga jartzeko, Javier Aguirresarobe zinemako argazki-zuzendaria izan zen sari-banaketan.

Gaztainerre eta Magosto jaiak ospatu ziren hilabete hasieran. Ez ziren musika eta dantzak falta izan, baina Toribio Etxebarria kalean gaztainak saltzeko postua duen Pedro Ruiz gasteiztarrak esan zigun moduan,



Pedro Ruizek urte asko daramatza herrian gaztainak saltzen.

azaroa

**ANDRES SAN MILLAN***Artista*

“Tokian tokiko jendeari zerbait esaten dioten obrak egitea gustatzen zait”

ezohiko giroa bizi izan zen, normalean baino bero gehiago egin zuelako.

Azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izan zen eta hilabete osoan zehar egin zituzten ekintzak horren harira.

Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak onartu zituen Udalak. Hilabete batzuk lehenago, apirilean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1. epaitegiak Eibarko Udalaren aurkako sententzia eman zuen, udaltzain bat 1992tik hizkuntza-eskakizuna zuen lanpostu baterako euskararen ezagutza egiaz-tatzeko betebeharretik salbuetsiz.

Euren seme-alabek pantailekin (smartphoneak, tabletak...) duten harremanarekin arduratuta, guraso talde batek Altxau Burua elkarte sortu zuen, teknologia arduraz erabiltzea eta euren seme-alaben garapena babestea helburu.

Hilabete amaieran San Andres jaiak ospatu genituen, eta aurten asteburuarekin bat egin zuten. Gainera, eguzkia eta eguraldi epela egin zuen eta, ondorioz, jendez bete zen herria.

San Andres egunean hain zuzen ere 100 urteak bete zituen Kontxa Laspiurrek, eta Debegesak Gure Balioak saria eman zion. Gainera, familiak, lagunak eta ezagunek omenaldia eskaini zioten egun batzuk geroago Ipuruako Merkatu Plazan.

» **83** eibartarrek amaitu zuten Behobia-Donostia maratoni erdia.

» Udalak **6.000** euroko partida bat bideratu zuen Valentziako kaltetuei laguntzeko.



EDU URIBE

Korrikalaria

"Behobia-Donostia ez dut modu konpetitiboan hartzen, festa moduan baizik"



Eguraldi zoragarria izan genuen San Andres jaiaz gozatzeko.



JOL IGARTUA

Abeltzaina

"Garrantzitsua da baserria eta abeltzaintza martxan egotea, eta herriarentzat elikadura bertatik sortzea"



Haur eta nerabeek telefono mugikorrekina duten harremanaz arduratuta, Altxau Burua elkarteak sortu zuten herriko hainbat gurasok.

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

X

F. Calbeton, 12 943096884
OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA

XABALO *Urte Berri On!*
2024

abendua 1 2



IÑAKI OSORO

Eibarko Klub Deportiboa

“Txopitea eta Pakea saria ez da gurea, denona da, kolaborazio estu baten ondorioa”



TELMO LAZKANO

Hezitzailea

“Oso garrantzitsua da azaltzea pantailaren atzean gertatzen dena pantailaren aurrean jarri aurretik”

Eguraldi txarrari aurre eginez, euskaltzale ugari egin zuen bat Euskararen Egunerako Eibarko Euskalgintza taldeak antolatutako ekitaldiekin. Gazte eta helduen mintzodromoan atzetik etorri zen eguneko ekintza nagusia: Ixotu euskeria! Ez dein argixa emetau goiburua hartuta “Euskal Herrian Euskaraz” abesti ezagunaren bertsioarekin dantza eginez argia eman zioten parte-hartzaileek euskarari.

Bere mendeurrenari ginga jarri dio abenduan Klub Deportiboak. Izan ere, Udalaren merezimendurik handiena jaso du: Txopitea eta Pakea saria.

Basagunea kontsumo ekologiko eta hurbilerako gunea zabaldu dute Errebalen. Horrela, Azataporrua Kontsumo Elkarteak bide berria hasi du eta, denda hutsa izatetik haratago, elkargunea izatea nahi dute

hitzaldiak, sukaldaritza tailerrak, ekoizleen aurkezpenak, dastaketak... eskainiz.

Urteko sasoirik hotzera datorrenez, neguko dispositibo berriz zabaltzeko eskaera egin diote Udalbatzari. Horrela, END izeneko plataforma eratu dute gaiarekin kezkatuta dauden hainbat herritarrek.

Herriko kulturak galera handia izan du urteko azken hilabeteen, Jose Zugasti eskultorea hil delako, alanbrea artea bihurtu zuen eibartarra. Herriko kaletan dauden bere lanak geratuko zaizkigu.

Kirol arloari begira, Arrateko Olabe zelaian jokatutako Bolunburu Oroigarria krosaren 73. edizioan, Julen Teran Eibarko Klub Deportiboko atletak irabazi zuen proba nagusia, aldi berean proban jokoan zegoen Gipuzkoako txapela janzteko.



Euskara ixotu zuten Euskararen Egunean.

- » **100.000** eurotik gorako aurrekontua izan du aurtengo Gabonetako Kanpainak.
- » Grupo Eibar higiezin euskal sustatzaileak **50.** urteurrena ospatu du.



JASONE OSORO

Idazlea

“Barrean dut sorkuntzarekiko behar natural bat”



**JÜRGEN LANDA
JON ALONSO**

Musikariak

“Esperientzia honek erakutsi digu jendearen aurrean emozioak kudeatzea ez dela batere erraza”



Euriari aurre egin diote aurten Mari Domingik eta Olentzerok.



Basagunea aurkeztu zuten Errebal Plazan duen egoitzan.

Kaleak argizatzeaz gain, hainbat ekintza prestatu dituzte aurtengo Gabonak ospatzeko.



zarelakogara



2024ko otsailean ekin zion ...eta kitto! Euskara Elkarteak gizarteratze-kanpainari helburu jakin batekin, eibartarrek euskara elkarte eta bere jarduna hobeto eta gehiago ezagutzea: elkarte zer den, zein baliori heltzen dien, zer egiten duen eta zein helbururekin... Azken batean, babes soziala izan da elkarteak kanpaina honen bidez lortu nahi izan duena. Komunitatea handitu nahi izan dugu, gure ikuspegia eta helburuak partekatzen dituztenak inplikatur, eta horrela izan da. Azkeneko hilabeteotan antzeman dugu bazkideen, eta orohar, herri-tarren gertutasuna eta babesa, eta esker oneko hitzak besterik ez ditugu ibilbide honetan ondoan izan ditugun eta aurrerantzean ere gertu izango ditugun guztiontzat.

Zaretelako Gara, Zarelako Gara.



zarelakogara

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

URTEKO KUOTA

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €

Norberak nahi duen kopurua (horri ere errenta aitortuenean %30 itzuliko zaio)

eta kitto!
euskara elkarteak

Tel. 943 20 09 18 elkartea@etakitto.eus
www.etakitto.eus



Jon Maiaren "Kantu bat gara" ikuskizuna.



Barixakuak Jolasian-eko jolasak Torrekuan.



Zarelako Gara gizarteratze-kanpainaren aurkezpena.



Euskeraz Primeran! neguko merkealdien azokan.

Datozen orriotan ...eta kitto! Euskara Elkarteak amaitzear dagoen 2024an egin dituen jardueren erakusketa txiki bat duzue, urtarriletik hasita abendura arte, hilez hile antolatu ditugunen laburpena. Eibartarron egunerokotasunean presente egon nahi izan dugu, euskaraz jarduteko aukerak eta espazioak emanez eta euskarari arnasmuneak eskainiz. Euskaldunei zein euskarara hurbildu nahi dutenei topalekua eskaini diegu gurean eta herriko eragile sozialekin egiten dihardugun elkarlanak ez du etenik izan. Guztion artean Eibar euskaldunagoa egingo dugu.

M8 egitarauaren aurkezpena



Aratosteetako Play Back lehiaketa

Erabileraren araberako mailaketari ekin genion komertzioetan



Nerea Ibarzabal urtarrileko Harixa Emoten saioan

Uxue Alberdi
"Belarriko kilkerra"
ipuin-bildumarekin
etorri zen Eibarrera



Korrikaren lekukoa harrotasunez esku artean.

Barixakuak
Jolasian jolasak
herriko auzoetan



2024an ere
Erosketa-ibilbidean
Euskeraz primeran!



...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzar Nagusia.

Euskal jolasekin
herriko auzoak
girotuz



Gurusoak Berbetan eta Ongietorriko familiak Pagoetan.

Hizkuntza-
eskubideen
aurkako erasoaren
salaketa



Nerea Loiola apirileko Harixa Emoten saioan.



Euskararen sozializazioari eta transmisioari buruzko XIV. Mintegia.



Familien arteko "Altxorraren bila" ekimenaren 3. edizioa.



Berbalagunei aitortza egin zien ...eta kitto!-k.



Ongietorriko familiak Leintz Gatzagan izan ziren.

**Ipurterre Ipuin
Lehiaketako
irabazleak**



**Berbalagunak
Zerainen, Aizpeako
meategietan**

**Ongietorrikoak
Sosola baserrian**



**Euskal Jaialdiak
herri kirolaririk
onenak ekarri
zituen beste behin**

**San Juan bezperan
sua protagonista**



**Jaialdiarekin
agurtu zuten
ikasturtea
Gurasoak Berbetan
eta Ongietorri
egitasmoe**

Arrateko Bertso Afariak bertsozaleen "gosea" asetu zuen



Arrateko Kittonbolan milaka opari banatu ziren



Euskeraz primeran! udako merkealdien azokan



Talde ederra Barixakuak Jolasianeko jolasetan



Ardo ekologikoari buruzko saioa Illunabarrian programaren barruan



European bisitatu zuten berbalagunek Hondarribia



Berbalagunak mintzapraktika egiten.



Berbetan jaialdiak eman zion hasiera ikasturtzeari.



...eta kitto! Jaiak euskara eraman zuen plazara.



Familia berbalagunek Iñaki Perurena harri-jasotzailearen museoa bisitatu zuten.



Euskararen inguruan egindako ahalegina aitortu zitzaizen merkatariei.



San Andres Bertso Jaialdiak puntako sei bertsolari ekarri zituen.



Kudeaketa Aurreratuaren Diploma jasotzen euskara elkarteko kideak.



IX. Gilda Lehiaketan 15 taberna aritu dira nor baino nor.

Ongietorrikoek
ogia eta gailetak
egin zituzten
Sosolan



Miriam Luki etorri
zen azaroko
irakurketa-klubera

Gaztetxoek giro
ederrean jolasten
dute Barixakuak
Jolasianekin



Euskararen
Egunean
euskararen argixa
ixotu genuen

Lepokoak egiten
ikasi genuen Laura
Albistegirekin



Pizza
osasungarriak egin
zituzten familia
berbalagunek



Astero ...eta kitto! aldizkariaren 7.800 ale banatzen dira Eibarko etxe eta leku publikoetan. Aldizkari bakoitzak 40 orrialde ditu batez beste; beraz, urtean 1.680 orrialde, gure irakurleei Eibarren gertatzen denaren berri euskaraz emateko.

Eibarko informazioa lau haizetara zabaltzeko lanean

Barixakuero kalera ateratzen gara gure aldizkariaren edizio berri bat eskaintzeko, urtean 42 argitalpen bilduz. Baina gure ahalegina ez da hor amaitzen; ezin ditugu ahaztu Hauteskundeetako ale berezia eta urtearen amaieran egiten dugun "Eibarko komertzio eta zerbitzuen gida", informazio praktikoa eta gai monografiko bat uztartzen dituen publikazio berezia. Aurten, **Eibarko elkarte gastronomikoetan** jarri dugu arreta.

Hala ere, gure lana paperetik haratago doa. Otsailean gure **webgunea berri** genuen, diseinua modernizatuz eta funtzionalitateak zabalduz, esperientzia arinagoa eta erakargarriagoa eskaintzeko. Aurten **3.000 albiste baino gehiago** argitaratu ditugu eta kitto.eus atarian. Gure presentzia digitala indartu egin da sare sozialetan ere, eta gero eta gehiago elkarreragiten dugu gure jarraitzaileekin. Aurten beste urrats bat eman dugu **TikTok plataforman gure kontua irekitzean**, publiko berriekin konektatzeko asmoz.

2024an zehar eta kitto.eus atariko **385.000 orrialde bisitatu dituzte** gure jarraitzaileek. Irakurleen erdia baino gehiago sare sozialen bidez sartzen da webgunean; oraindik Facebook da trafiko-iturri nagusia gure sare sozialen artean (%64), baina gero eta gehiago dira Instagram bidez sartzen direnak (%21). Aipamen berezia merezi du azken hilabeteetan gure **YouTube kanalak izan duen gorakada** ere. Bertan, 200 bideo baino gehiago sortu ditugu urtean zehar.

Gure herriko lehen hezkuntzako ikasleei eskainitako **Txikitto! hila-betekaria** ere nabarmendu nahi dugu. Aurten, irakurketarekiko interesa sustatzeko eta haurren parte-hartze aktiboa sustatzeko diseinatutako atal berriak sartu ditugu. Guztira 8 ale banatzen dira urtean Eibarko 7 ikastetxetan, eta **1.600 ikasleren eskuetara** iristen dira.

Eskerrik asko bide honetan laguntzeagatik. Grina eta konpromiso berarekin jarraituko dugu lanean, zuri informazioa emateko eta zuegandik gertu egoteko.

WEBGUNEKO ALBISTE IRAKURRIENAK

Argazki-bildumak, bideoak, zozketak, zorion-agurrak eta auto istripu eta suteei buruzko albisteak izan dira gehien irakurri direnak urte honetan zehar, eta arrakasta handia izan dute hauteskondeen emaitzekin eta Korrikarekin lotutako albisteek ere.



2024an Irakurleen arreta deitu duten beste albisteak hauek izan dira: "Walter Tuzzeo musikaria eta soinu-teknikaria hil da"; "1966an jaiotako Iturburuko gelakideek urteroko bazkaria egin dute asteburu honetan"; "4.947 zembakiari egokitu zaio ...eta kitto! Euskara Elkarteak zozketatu duen luxuzko asteburua"; "83 eibartarrek amaitu zuten atzoko Behobia-Donostia maratoi erdia"; "Giro ederrean ospatu dugu ...eta kitto! jaiaren lehen zatia"; "Autobus zerbitzu guztiak doakoak izango dira Arrateko jaietan, zapatuan eta domekan"; "Eibarko 100 emakumek hartu zuten parte atzoko Lilatoian"; "Bulego eta La Pegatina taldeek emango dituzte Udalak sanjuanetarako antolatutako kontzertu nagusiak"; "Urko argiztatu dute Eibarko Klub Deportiboaren mendeurrenaren ospakizunekin hasteko"; "Altxau Burua sortu dute teknologiaren erabilera arduratsua eta osasuntsua sustatzeko"; "Errugbia eta lagun giroa Urtzi Abantzabalegi gogoratze eta omentzeko";



Olentzero joan zaigu... datorren urtera arte

Olentzeroren kantu-kalejira euripean egitea egokitu zaigu aurten, baina, hala ere, ederto ibili ziren parte hartzera animatu ziren haur eta helduak. Mari Domingi, Galtzagorri bihurriak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak eta beste lagun asko elkartu ziren, Untzagarainoko bidean Olentzerorekin batera kantuan joateko. Behin Untzagara ailegatuta, udaletxeko patioan azken orduko eskutitzak hartu zituen Olentzerok, haurren eskutik zuzenean. Kalejira-ko argazkiak eta bideoa ikusteko: www.etakitto.eus.



Lurrazpian dagoen Eibarko ondarea ezagutzeko saioa

Urtarrilaren 2rako proiektzioa antolatu dute Untzaga gizarte zentroan (erakusketa aretoan), 18:00etan. *Eibar subterráneo. Nuestro patrimonio sumergido* izenburuari jarraituta, Javier Martin Lapeyrak Ego errekan zehar, Eibarko alde ezkutu hori erakusteko egindako irudiak erakutsiko dituzte, eta bera han izango da, horiei buruzko azalpenak ematen. Sarrera librea izango da.



Hiru Errege Magoen kabalgata urtarrilaren 5ean

Urtarrilaren 5ean egingo da Errege Magoen kabalgata, 19:00etan Untzagaetik abiatuta. Cielito Eibarko Musika Bandak lagunduko die herriko kaleetan zehar egingo duten kalejiran. Aurretik, baina, Nele Dantza Eskola, Ballet Eibarres, Kaxa, Koa eta Ipurua Gimnasia Erritmikoa taldeek Ipurua kiroldegian egingo duten dantza ikuskizuna ikusiko dute Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek.



Urtarrilaren 25ean aurkeztuko dute “Go!azen 11” musikala

Go!azen 11 telesailaren denboraldi berriko kontzertua aurkeztuko dute aktoreek Eibarren, urtarrilaren 25ean, bi funtziotan (17:00etan eta 19:00etan). Horrela, telesaila jarraitzen dutenentzat aukera paregabea izango da protagonistak ikusteko, dantzatzeko, eta haiekin kantatzeko. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin) eta aurretik erosi daiteke, astelehen eta barixakuetan Coliseoko leihatilan, edo Interneten, Kutxabank zerbitzuaren bitartez.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

7	8			3			
					2	6	
		1	5	6			
	5			8			9
	4	7		5	3	2	
3			4				1
			7	4	9		
	2	5					
			2			3	6

Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q

soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	9	4	6		1	8	
	1		5				
		5					1
9	8			2		3	
		2				6	
		6		3			4 2
5						2	
					9		8
		8	2	5	4	7	

soluzioa

Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q
Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q	Q



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **4an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **5ean:** 20:00
- **6an:** 16:45, 19:30

“Parthenope”

DRAMA



2024/Italia/136'
Zuzendaria: Paolo Sorrentino
Protagonista: Celeste D. Porta,
Gary Oldman, Stef. Sandrelli
Zientzia fikzioa

2 ARETOA

- **4an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **5ean:** 20:00
- **6an:** 17:00 (Antzokia), 19:30

“Sonic 3. La película”

KOMEDIA



2024/AEB/110'
Zuzendaria: Jeff Fowler
Protagonista: James Marsden,
Jim Carrey, Alyia Browne
Abenturak/Bideojokoa

ANTZOKIA

- **4an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **5ean:** 20:00
- **6an:** 16:45 (2 Aretoa), 19:30

“Better Man”

DRAMA



2024/Australia/131'
Zuzendaria: Michael Gracey
Aktoreak: Robbie Williams,
Jonno Davies, Damon Herriman
Musikala/Biografikoa



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MAIALEN!** Urtarrillaren 3an 13 urte beteko dozuz eta. Musu potoluak famelixakuen eta, batez be, Jonen partez!




Zorionak, **MARA!!!** Gabonetan 6 urte egin zenduaz eta!!! Musu bat zure famelixaren eta, batez be, Sararen partez.



Zorionak, **YANNICK!** Urtarrillaren 3an 2 urtetxo egingo dozuz eta. Oso ondo pasa zure urtebetetzian. Zure famelixaren partez.



Ongi etorri, **AIUR!** Hillaren 15etik gure artian zagoz eta. Patxito bat famelixaren eta, batez be, zure anai-xa Unaxen partez.



Zorionak, **LAIA** eta **MAREN.** Gure etxeko printzesak hillaren 24an urtetxua egin dabe eta. Bihar zaittuegu!



Zorionak, tio **IÑIGO** eta **IKER.** Ondo-ondo ospatu zeuen urtebetetzia! Musu haundi bana.

<p>FUNEUSKADI Funeraria</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funeraria</p>
<p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>TANATORIO MUGICA</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ernuako bulegoa: Marqués de Valdeispina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

Guillermo Sorriqueta Barcena

7. URTEURRENA
2018/01/08

"... eta nik txoria nuen maite..."

- MAITE, RICARDO
ETA SENIDEAK -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari bezala. Interna. 607784902.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642044618.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. 635944602.
- Neska eskaintzen da arratsalde garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. 643505662.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak zaintzeko. 642701710.
- LH ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 688621149.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643766267.

- Neska eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari bezala. Baita asteburuetan ere. 673538021.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643074369.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburu eta jaiegunetan ere. 669181717.

4.2. Langile bila

- Sukalde lanak egingo dituen esperientziadun pertsona behar da elkarte gastronomiko baterako. 620888320. Alex.
- Dekoratuzailea behar da Eibarko Urrategi-Interiorismon. 629437192.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Taberna baterako bigarren eskuko hotz-kutxa (izozkailua/ arkoia) behar da. 629526032.
- Aulki bihur daitekeen ibiltaria eta barruko opari aldagarria saltzen ditut. 150 euro. 649105442. Elena.

6.4. Bestelakoak

- Telazko poltsa galdu nuen Bossa tabernan. Balio sentimental du. Bertan laga mese-dez. 652716135.

Baltasar maitea:
aurten, etxe bat,
garaje bat
eta lokal bat
eskatuk  ditut
 Errekatxu Berrin. 

ESKATU LOIOLARI
ERREGI MAGOEI
ESKATU EZIN DIEZUNA.

Zorionak eta Urte Berri On!



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir

ONGI
ETORRI
SAN ETKA EDAN

ESNATU ZURE ZENTZUMENAK
Sukaldaritza esperientzia ahaztezina



WWW.ONGIETORRIBAR.COM